

## BAI EUSKARARI

Eta bai! Eta bai!  
Nik Euskarari  
bai ta bai!

Uso xuria, uso gorria,  
dantzan nabil suaren gain...  
Uso gorria, uso xuria,  
Herriak Euskarari bai!  
Neure kabia daukat garretan,  
neure umeak neure zai!  
Nago odoletan, garretan,  
txinparta gainetan,  
neure umeak neure zai...

Uso xuria arkitu dute,  
hotzak dardaraz erd'hila...  
Uso gorria garretan dator  
Euskal Herriaren bila...  
Uso xuria lehengoa duzu,  
uso gorria geroa...  
Euskal Herriak uso bakar bat  
iguzki aldera doa...  
San Juan loreek usaina dute,  
eta Herriek arima...  
Euskal Herria Euskara barik  
irin gabeko ogia!  
Euskal Herria Euskara gabe  
hegal gabeko usoa!  
Uso gaztea aidatu hadi,  
eta iguzkiraino hoa!

Eta bai! Eta bai!  
Nik Euskarari  
bai ta bai!  
Eta bai! Eta bai!  
Guk Euskarari beti bai!

## ARGIRIK GABEKO BIDE BAT

Argirik gabeko bide bat luzea...  
Zuretzat kantu hau, nunbaiko gaztea!  
Bakartasunean, maitasunik gabe,  
batzutan pentsatu al duzu ez izaita  
litaikela hain hobe...

Baietz! Hamasi hamazazpi urtetan,  
gu ere intzira berdinetan ibili gera!  
Baietz! Zaharren esku balinbazira,  
zuretzat munduan leku guti izanen da!

Nola den xoria ihizi denboran,  
halaber, gaztea, zira arranguran!  
Dener ausartatzen, denetaz beldurtzen,  
mina jin orduko ez dakizu ordea  
argi aldera joaiten...

## SAN PRUDENTZIO, SAN AGUSTIN

Saindu zahar bi zerutik  
entzunak ditugu lurretik:  
nahaspila dutela han,  
ez jakin errege nor eman...

San Prudentzio, San Agustin,  
biak bedera bizarrekin,  
zerutik lurrera daude,  
berdin denetz hemen ere...

Lapurdin eliza batean,  
apez zahar bat otoitzean:  
"Gaitzazu lagun, San Agustin,  
Petan Lodi jaun mera ez dadin!"

Euskal herrietako mina,  
"Mari-Gaixto" deitzen duguna:  
belarrean egin haurrekin  
ukanen baitugu zer egin...

## ASTIRI BAT GARAZIN

Ardiak lerro lerro mendi maldan doatzi...  
Aize fir-fira batek deituz gorago beti...  
Ibai zola erreketan denak lotan sartzen dira...  
Zoin amultsua zautan, gaua jausten mendira...  
Egunaz ixil bazen, gauaz pitzen mendiak...  
Belar punta bakotzak nasai dakar bizia...  
Gaztain ondolan kukuak joiten dauku soinua...  
Eta izarrekilan, pestan dugu zerua...  
Orroituko naiz beti Arradoi-ko bazterrez...  
Orra-rat so gelditu bainaiz maiz bi begiez...  
Bainan orai nik ezin dut zangorik hor finkatu...  
Bizi bihurri hunek bainau hortik urrundu...

## GOAZEN ALEGERAKI

Goazen alegeraki,  
bide handian beti,  
goazen beti!  
Goazen alegeraki,  
bide handian beti,  
mila xori iduri!

Ez dira ez beldur xoriak  
iragaiteko urrungo mendiak!  
Ez gira ez beldur gu ere  
bidea menditsu bada ere!

Izan dadin euria edo  
gure mendi gainetan haize hego,  
gu bagoaz beti aintzina,  
gora botatuaz irrirtzina!

## MATTIN KOKIN

Auzoko baratzean  
ibili niz frangotan  
mertxika ondu jaten...

Josefinaren gatik  
ez nuen nik beldurrik  
bainintzen eskapatzen...

Hortakotz neure omena  
ez da ez nihun ez dena:

Mattin Kokin dut nik izena!  
Tra la la lara...  
Mattin Kokin dut nik izena!

Josefinen alaba,  
zer nexkato xarmanta,  
neuretako segurik!...  
Selauruko atea  
ahantzen du hestea  
zertako baitakit nik!...

Josefinen alaba  
izanen zen serora  
nik ez banu deus egin!...  
Jaun ertora geroztik  
kofesio xilotik  
jarri zaut ulitxekin...

## EUSKADIKO LANGILEAK

Esperantza kanta,  
hau guretzat baita,  
Euskadiko langileak!  
Esperantza kanta,  
hau guretzat baita,  
bildu gaitezen guziak!

Lurlanetan edo lantegitan,  
noredako hoinbertze lan?  
Beti berak dira manatari,  
ez dugu nahi guk hori!

Jaunak ados beti jaunekilan,  
aspalditik gira hortan:  
ttipiak baigira dohakabe,  
haundiak ditugu jabe!

Izan Hego edo Iparreko,  
denak Herri berdineko!  
Urratu ditzagun gaur beretik  
gure bideak mugatik!

## TELEBIXTA ETA RADIO

Euskaldunak gira aspaldiko Herri,  
bainan nehorik guti dauku erakatsi  
gure Herriaren berri...  
Zangoz eta besoz gaituzte hertsatu  
bai eta zanpatu, eta guk holaxe  
burua apaldu...

Telebixta eta radio,  
pagatzen ditugu kario,  
eta zeren entzuteko:  
Parise dela denen Jainko!  
Telebixta eta radio,  
gu guzien enganatzeko,  
ez baita ez harritzeko  
balinbagaituzte meneko!

Mugaz bestaldean, komedia bera,  
ez naiz ez harritzen, han ere jabeak  
Parisen kusi baitira...

Madrilen buztana, Parisen muturra,  
noiz botako dugu gure zangopetik  
horrelako zakurra?...

Plazako bidean, amaren eskutik,  
haur ttipi bat doa, bi zangoak arin,  
herriko ikastolara...  
Haur ttipiño huni, dugun erakatsi  
bat besteak beste tresna maltzur horri  
ez sobera fiatzen!...

## XARMEGARRIA ZIRA

"Xarmegarria zira eder eta gazte,  
ene bihotzak ez du zu baizikan maite.  
Bertze zenbait bezala, ote zira libre?  
Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke.

Xuri gorria zira, arrosa bezala:  
profetak ere dira mintzo hola hola.  
Araberen bazinu gorputza horrela,  
iduriko zinuven zeruko izarra.

Oi maitea zatozkit, plazer duzunean,  
nehork ikusi gabe, ilun-nabarrean...  
Lagun bat badukezu joaiteko bidean:  
hark ezarriren zaitu trankil bihotzean."

"Plazer eginen duzu, ixiltzen bazira,  
haur inorantak hola tronpatzen baitira.  
Ez da enetzat ina holako segida...  
Bertzalde zure baitan ez naiteke fida!"

"Adios beraz orai, ene arrarora,  
hori dela medio herriak banoa;  
bihotza trixte eta kexuan gogoia,  
beti jarraikiren zait zur'amodioa."

## NUN DAGO?

Nun dago nere izaitearen iturri garbia?  
Nun dago nere bizi xumearen egi argia?  
Nun dago nere ero sanoen lur emankorra?  
Nun dago nere ele-solasen soinu zilarra?

Nere hizkuntza dauate ebatsi,  
betikotz nere bizi ebaki!  
Ezpainetarik atera hotsak:  
gezurrezko soinu iheskorak!  
Mundu zabaleko xoko hunetan,  
bizi xume eta umil batean,  
Euskaltasunaren neurri bete  
bizitzeko nekea gozatzen dut!

Ez naiz nun-nahikoa!  
Zorionez ta zoritxarrez  
Euskaldun naiz!  
Euskalduna naiz!  
Eta Euskaldun ezin izan!  
Izaite bat naiz  
Ukatua!  
Karrasi bat naiz  
Urkatua!  
Izaite ukatu baten karrasi urkatua!